

Biolin bat AP-8an

Joxean Agirre

Badira hiruzpalau hilabete AP-8an Mendaro parean autopistako he-
siaren kontra gizon bat biolina jo-
tzen hasi zela. Aldean kartoizko
kartel bat zuen “*Cada día más ruido*” zioe-
na, zaratatik babesteko panel babesgarri bat
eskatuz, pentsatzen dut. Eskaerak arrazoiz-
koa zirudien, ez baitu goxoa izan behar
etxeko egongelan Paganiniren kapritxo bat
jotzen ari zarela ondotik igarotzen diren ka-
mioitzarren burrunbak entzun beharra.
Egia esan, ez naiz pertsonarik egokiena
gaiari buruz ezer esateko, belarri batetik
behintzat erdia bakarrik entzuten baitut eta
musika altu samar eta argia urri dagoen ta-
bernetan, mintzaidearen aurpegia ozta-oz-
ta ikusten dudanean alegia, gutxi gorabehe-
rako elkarriketak izaten baititut.

Badakit entzumen fina izateak abantailak
dituela. Emaztearekin jatetxe txukun bate-
ra joaten naizen aldi bakanetan, inguruko
mahaietakoen berri galdetzen diot tarteka
eta berak «han bazterreko guraso haiek
drogarekin arazoak dituen seme bat dute»,
erantzuten dit, esate baterako. Baina ardoa-
ri tragoxka bat jotzen diodala neurekiko
pentsatu ohi dut zer axolako zaizkidan eze-
zagunen arazoak. Gutxi entzuteak, gainera,
ematen du halako distantzia bat, autismo
puntu bat, barrura begira bizitzen lagun-
tzen duena. Horregatik, etxeko postontzian
GAESen publizitate gutunen bat sumatzen
dudanean isilka paperontzira botatzen dut.
Horregatik beharbada Mendaroko biolin-
jotzailea lehen aldiz ikusi nuenean perfor-
mance bat zela pentsatu nuen edo arte kon-

tzeptuala, Duchampek pixatoki bat erakus-
taretoan ipintzea bezain haustailea. Nik
neuk, nire esku balego, kristal bikoitza duen
manpara bat jarriko nioke, onbera eta la-
guntzera emana bainaiz artistekin (jotzen
oso txarra ez bada behintzat). Baina zer
egin Errekaldeko Gordoniz kalean autopis-
taren azpian bizi diren auzotarrekin edo Pa-
sai Antxon leihotik eskua atera eta Topoa
ukitzen dutenekin? Buruari bueltak ematen
aritu naiz eta ez dut irtenbiderik aurkitu,
AHTren lanak bukatu arte bederen oso zaila
ikusten baitut Topoa lurperatu edo Bilboko
auzoa zeharkatzen duen autopista “deserai-
kitzen” hastea. Arantxa Tapiari kontuak ko-
adratzen hasten zaizkion bitartean, beraz,
hobeko dute Errekaldeko edo Antxoko au-
zotarrek biolina jotzen ikasiko balute. •

Adierazpen askatasuna

Saioa Iraola

Azken astean, adierazpen askata-
suna izan dugu hizpide komuni-
kabideetan. Hazte Oir Espainiako
erakunde ultrakatolikoaren auto-
bus transfobia geldiarazteko ebazpena-
ren aurrean, Ignacio Arsuaga plataforma-
ko kideak adierazpen askatasunaren
aurka egitea leporatu dio Madrilgo Udala-
ri. Bestalde, Poliziaren eta talde parapoli-
zialen biktimei egin zieten omenaldi ins-
tituzionalaren karietara, Uxue Barkosek
irainak jaso zituen, eta Maria Dolores de
Cospedalek esan du gaitzetsi egiten duela
Barkosi “puta” deitzea, baina hori esatea
adierazpen askatasuna dela. Horiez gain,

izan ditugu “Argia”-ren aurkako auzia
(Mozal Legea eskuetan hartuta) edo na-
zioartean aski ezaguna egin zen “Charlie
Hebdo”-ren aurkako auzibidea.
Denek ezbaian jartzen dute adierazpen
askatasuna. Librea al da pentsatzen du-
gun guztia adieraztea? Batzuen ustez, hi-
tzek libre behar dute abesteko zein hitz
egiteko, nahiz eta politikoki zuzenak ez
izan, gustu txarrekoak edo deitoragarriak
izan; eta beste batzuen iritziz, berriz, mu-
gak behar dira. Adierazpen askatasunak
orotariko informazioa eskuratzeko bidea
ere ematen du, pentsamendu propioa
eraikitzekoa.

«Aniztasuna oinarri duen jendarte bate-
an, batzuentzat gorrotoaren bultzada dena,
besteentzat poesia izango da» (Vera Jouro-
va). Gero eta jendarte globalizatuago, tek-
nologikoki digitalago eta anitzagoak ditu-
gun honetan, pentsamenduak, bizipenak,
ideologiak... ere desberdinak ditugu, kon-
trajarriak askotan. Hortaz, non dago beste-
en iritzia errespetatzearen eta hainbat es-
kubidetan atzera ez egitearen arteko muga?
Afera honetan formula magikorik ez du-
dan arren, iruditzen zait ezinbestekoa dela
testuinguruak duen garrantzia kontuan
hartzea eta zapalduak eta zapaltzaileak
desberdintzea. •